

El Arca de Noelia

f l o r e s s e c a s

El Arca de Noelia taldea 2004an hasiko da jotzen eta urte berean etxeko euren estudioan grabatuko dute lehen maketa "Agua" izeneko. Maketaren asmoa erabat argia bezain xumea izango da, El Arca de Noelia taldeak bere proposamena zuzenekoetara begira du eta maketa horren funtsa kontzertuak ahalbideratzea, egonkortzea eta kopuruan igotzea izango da. "Agua" maketa "Emergenza-Bilbao" edo "Bilbovisión-Bilbao" lehiaketetara aurkeztuko dute eta finalista geratuko dira bietan. El Arca de Noelia taldeari aldaketa ordua iritsiko zaio 2009an, Patricia Zalaya (ahotsa) eta Javier Rico (baxua) musikariei batuko zaizkie Ibai Mingo (gitarra) eta Bernardo Vazquez (bateria) eta taldearen erabateko finkatzea ekarriko du horrek. Lau musikariak hainbat musika proiektutan egon dira sartuta, hala nola: Los Dirigibles, Soul Bussiness, Zenith, Labola, Steelcase, Loudarama, Recordandoamodulos, Línea2, MCD...

El Arca de Noelia taldearen lehen diskoak "Flores secas" izena du eta 2010eko udan grabatu da Tio Pete estudioetan (Urduliz, Bizkaia), Karlos Zubiaga grabaketa eta nahasketetaz arduratu da. Ibon Larruzeak Euridia estudioetan (Boluetan, Bilbo) masterizatu du eta ekoizpen lana Javier Rico eta El Arca de Noelia taldearen artean egin dute. Musikari laguntzaileen atalari dagokionez, Jon Celayak Fender Rhodesa jo du "Flores secas" abestian eta Xabier Zalayak ahotsak sartu ditu "Qué quieres de mí" kantuan. El Arca de Noelia taldeak bere estreinako "Flores secas" diskoan poparen zaldiaren gainean arrapalada bizian dator trostan rockaren indar babeslearekin. El Arca de Noelia taldea rock amerikarraren eztenkadak gitarren altzoan ongi nahastuta dituen poparen kantuen erraztasunarekin bezala deskriba daiteke. Ahotsen melodiek eta ahotsaren gorputzak berak ere oso sonoritate aberatsa dute, eta erregistro grabe, lodi eta sendoek kontraltoaren zeharoko itxura hartzen dute etengabe. Ahotsaren gorabeherak ederki datoz lagunduta musika oinarri trinko eta gardenarekin. Dena trosta batean dator, bat eginez leloak, melodiak eta musika erritmoak. El Arca de Noelia: poparen arima sensibilitate rockazalearekin. Rockaren sendotasuna poparen erraztasunarekin uztartuta. Amodioaren inguruan eraikitako amodioaren etxea non pozaren ifrentzia une oro agertzen den. Bizitzaren pasarteak egunerokotasun tanta bihurtuta. El Arca de Noelia taldeak badaki ongi nola jokatu bizkortze tempoekin eta nola hurbildu jendearengana. Denbora nahi dute segitzeko egiten ari direna erakusteko eta jendea txunditzeko. Irribarra doan doa, guztia bezala.

ritxi aizpuru (2011ko apirilaren 14an)

1.- EL ARCA DE NOELIA TALDEAK UR POPER GARDENAK ZEHARKATZEN DITU BAINA BATZUTAN BADA OLATU ROCKZALEA. HAIZE POPZALEA ETA ITSASBAZTERRA ROCKAREN HARRIZ JOSITA.

Guk musika egiten dugu, besterik gabe, barrutik ateratzen zaiguna... El Arca de Noelia taldean estilo, eragin eta gustu desberdineko lagunak batu gara, eta zaila da esatea zein den egiten dugun musika. Ez dugu zertan musika estilo batean sartuko; garbi dago, ordea, "pop-rock" itxura duela gure musikak. Ez dugu desberdinak izan nahi, ez dugu ez baten zein bestearen antza izan nahi, gure nahia da batzea eta ikustea ea noraino heldu gaitzkeen gu elkarrekin. Gure artean izugarrizko kimika dago eta horrek ongi eragiten digu. Errespetu handia diogu elkarri eta helburu bat: nobera ongi egon dadila egiten ari denarekin. Halako batean konturatu zara kantuak atera zaizkigula eta buru-belarri babestea baino ez dugula.

2.- EL ARCA DE NOELIA TALDEAK MAITASUNAREN BI ALDEAK ERAKUTSI NAHI DIZKIGU, GOXOAK ETA MIKATZAK. MAITEMINTZEAK ETA URRUNTASUNAK.

Gure hitzek egunerokoa dute mintzagai, maitasuna, laguntasuna, hobetzea, baina dena hurbileko hizkuntza batetik kontatuta, egunerokotasunetik hitz eginda denok uler dezagun zer esaten den, baina hitzen adiera bikoitza ere hor utziz. Horrela idaztearen alderik bikainenena da idazleak "historia" bat adierazten duen bitartean entzuleak beste modu batean ere uler dezakela eta baita identifikazio bat ere. Jende asko etorri zait esanez identifikatzen dela kantu baten letrarekin berari antzeko zerbait gertatu zaiola esanez, kontatzen dizu eta jabetzen zara ez duela zer ikusirik nire "historiarekin", eta hor kontura zaitezke hitzen esannahiak oso zabalak izan daitezkeela. Autobiografiatik gertu dauden hitzak dira baina beste hiztegi bat erabilita, zehaztasunik eta arrastorik utzi gabe, norberak pentsa dezala nahi duena.

3.- EL ARCA DE NOELIA, IZEN HANPATUA DERIBA BIBLIKOAREN KUTSUAREN...

Lerdokeria dirudi taldearen izena aukeratzea, baina ez da ezer erraza eta taldeek euren lanak hartzen dituzte eta hainbat burukomin barne. Kontuan har izen hori betiko geratuko dela eta agian baten batek ez duela oso atsegin izango. Guretzat ez da aferra bihurtu. Batbatean sortu zitzaigun eta denok bat etorri ginen. Taldearen izenarena magia bat da. El Arca de Noelia izena bidaia, bidea, deriba... baina aurrera segitzeko behar duzun guztiarekin. Noeren itsasontziarekin bezala, guk ere antzeko zerbait pentsatu dugu mundu hobeago baten bila joanez, mundu osasuntsuago bat, garbiagoa, asmo onekoa... Izugarrizko patxada ederra eman zigun izenak eta denok oso kontent paratu ginen. Noe izena kendu eta Noelia erantsi genion, hitz joku bat baillitza. Bestalde, maite dugu izenarekin sor dezakegun nahasmena, El Arca de Noelia taldean abesten duen neskak Patricia izena izatea eta ez Noelia. Noelia izango balitz abeslariaren benetako izena, berehala botako genuen zakarrontzira.

Patricia Zalaya: ahotsa eta koruak
Bernardo Vazquez: bateria eta perkusioak
Ibai Mingo: gitarrak
Javier Rico: baxua